

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Gogora ekarri, gogoan hartu

EGIA DA! Simaurra egiteko makinak besterik ez garelako iruditzen zait maiz. Gure etorkizunerako garrantzitsuena gure auzokoak ondo bizitzea dela zenbat aldiz gogoratzen dugu? Gure auzoko landareak, animaliak, ekosistema, paisaia... Gogoratu eta gogora ekarri, egunero, bizitzako eginahal guztiei ekiteko gogora ekarri. Ekarki eta txertatu.

Ahantzuraren garaia bizi omen ditugu. Bakoitzak berea eta kitto. Gerratearen memoria, jendartearen kultura, dena ahaztu... Antola hor! Gogora ekarri ezin bizi dugun ingurumen horretan bertan eskura ditugu ahantzuraren gaitz horri gogor egiteko sendagaiak. Sendagaiak ahaztea da ahantzuraren gaitza.

Gaur irakurri dut Alzheimer eta zahartzeari lotutako antzeko zoramen eta gaitzei aurre egiteko zergetaerako hiru aukera eraginkorren berri. Bat, jende arteko solasaldiak, berbetak eta eztabaidak. Bestea sukaldetan janariak prestatzea. Eta hirugarrena landa-

rezaintzara ematea. Atso eta agure helduak lauzpabosnakako taldetan jarri dituzte. Inondik ere, bakar antzera etxean dauden aldean memoria test hobeak osatu dituzte. Hiru lan horiek bakardadea uxatzen dute eta kakoa hor egon omen daiteke. Lehen bietan jendartearen sustatzen da. Eta hirugarrenean? Horretan jendea bezain garrantzitsua izan daitekeen gure ingurumena, gure paisaia, paisaia kulturala, kultura! Landareek mesede egiten digute. Sendagai.

Landare artean dabilen gutxi asko erromeroaren berri izango du, *Rosmarinus officinalis*. Usain handiko landarea da, kolonizatu gintuen Mediterraneo itsasotik ekarria. Etxe-kontra eta baratze-bazterretan ezaguna, lorategi hiritarretan gero eta ugariagoa. Bada bere ura, erromero-ura hartzea oso ona omen da memoria gaitasunari eutsi eta hobetzeko. Hori ere irakurri berria dut eta, gogoratzen banaiz, hartuko dut.



Irakurleak galdezka

Kaixo Jakoba. Zure artikuluko bateko fotoa ikusita, behin, Dublinetik pasieran nembilela, egin nuen beste batez oroitu nintzen, eta horra fotoa! Badut gainera galdera bat: etxeko balkoian *cissus* bat jarri nuen horman gora ondo igotzeko moduan. Geroago loreontzi berean jazmina jarri nuen txirikordaturik, bestearekin batera gora joan zedin; eta ondo hazi ziren, baina jazmina ximeltzen eta igartzen hasi zitzaidan eta orain *cissus* bera ere bai. Zer izan liteke, kokoren bat, orientazio txarra?

Jon Ezkurra (Algorta).

Kaixo Jon, eta eskerrik asko argazkiko asmo dotorea gureganatzeagatik. Zure balkoikoari buruz, orientazioa kaxkarra balitz hasiera

beretik azalduko litzateke arazoa. Kokoren bat izanez gero beste sintomaren bat ere bai agertuko: lizun, arrautza, har, beldar... Bi landare igokari horien gaitza loreontzia bera izan daitekeela iruditzen zait. *Cissus* bezala jazmina, biak asezinak dira. Etengabe puja berriak luzatu eta hazi egin behar dira, bestela akabo. Eta loreontzia muga da, elikagai mugatuak ditu. Bi landare elkarren ondoan egoteak egoera txartu besterik ez du egiten. Elkar akabatu arteko onik ez dute izango. Ahal izanez gero bakoitza loreontzi banatan jarri. Eta elikadura zaindu: urtero ahal den neurrian luberria eman, axalekoa behinik berri eta simaurrez ongarriritu. Era berean, neguan ez beste, ureztatzen



JON EZKURRA

duzun urari ongari kimiko dosi txiki bat gehitu, berdetarakoa, hostajea indartzeko likidoa, onena. Hori egiten baduzu ondo ezkonduko direla iruditzen zait. Noiznahi gose puntua pizten zaizunean, loreontziko bikotearekin gogoratu... Eta jaten eman. ■



Babeslea: Alkartasuna Kooperatiba elkarte



EGOITZAZ GAIN, ZERBITZU BERRIAK ETA GASOLINDEGIA

KOKAPEN BERRIA USURBILEN

Atallu Industrialdea, 26

T 943 361 114 / alkartasuna@usurbil.com <http://www.alkartasunausurbil.com/>

